

KANALAK

Enpresak komunikatzeko eta segmentu-merkatuei bere balorezko proposamena helarazteko moduarekin lotuta daude kanalak.

Gure bezeroak izango direnekin komunikatzeko erabiliko ditugun moduak sare sozialak izango dira. Gaur egun punta-puntan dauden TikTok eta Instagramen izen bat lortzen saiatuko gara. Horretarako, konstantzia mantentzeaz gain, hainbat kolaborazio egingo ditugu influencer ezagunekin, jende berri eta gehiagorengara heltzeko asmoz. Horretaz gain, kolaborazioa egingo dugun Ezpeleta enpresa era baliogarria izango zaigu gure produktuaren publizitatea egiteko.

Gure produktuak bultzatuko dituzten pertsonak gure nitxoarekin erabat lotuta egon beharko dira, horregatik organizazio eta garbiketaren inguruko gauzak partekatzen dituztenak izango dira gure irudi publikoa; hala nola, The Secret Cleaner edo Alicia Iglesias (orden y limpieza en casa).

Beti-Xiku enpresan erabiliko dugun kanal nagusia gure web-gunea izango da. Honen bitartez, gure salmentak aurrera eramán ahalko ditugu. Bestalde, gure produktuak erosten dituzten bezeroek posta bidez jasoko dituzte beraien eskaerak. Hala ere, Ezpeletatik zuzenean erosteko aukera ere izango dute bezeroek, gure webgune propioaz gain, salmentarako, Ezpeletak dituen kanalak aprobetxatuko ditugulako; gure produktua salduko diogu Ezpeletari, beraz, gure bitartekaria izango da. Horrela, salmenta azkarragoa eta arrakastatsuagoa izango da.

Azkenik, gure enpresa erabat garatuta dagoen momentuan, denda fisikoak sortzeko ideia planteatu ahalko dugu.